





Abuztu amaierako ilunabar bateko argi goibelean, hogeita hamar bat gazte kokoriko zeuden lur lokaztuan, poliziaren kontrol batean Pyeongtaek-en, erantzukizko begiradak botatzen ehunka istiluen aurkako polizia eta soldaduri, une batetik bestera gero eta gehiago zirenak. Zain militarren sekulako hedatzearekin kontrastean, taldea, hiru atzerritarrek zipriztindua, fisikoki «armarik gabeko» gizabanako batzuek osatutako gorputz ahula zen, baina haien kontzientzia eta komunio-zentzua, hala ere, une hartantxe ari zen hedatzen hasten, egoeraren muturreko tentsioa zela medio. Nahiz oraïndik sentitu poliziari aurre egiteak eta Daechu-ri herrixkan sartzeko zuten debekuak eragindako urduritasun puntua, taldeak bertan Hego Korean base iparramerikarren birkokatze eta hedatze planaren aurka bi urte baino gehiagoz protesta egin zuen jendearekin eta ekintzaileekin gauzatutako bilera eta elkarrizketak egitea lortu zuen. Aldi berean, arrozak ospetsu egindako landa herrixka hartako arroz sail berde zabalak zabortege bihurtzen ari ziren, ondoren base militar bilakatzeko.



16 Beaver-ek Korean egindako proiektuaren *-Between Us-* hirugarren egunean gertatutako gauza bera gertatu zen Seuleko Insa Art Space-n, Korean, hiru hilabetez, aurretiazko ikerketa-bidaia batekin hasita, eta jarduera sorta bat barne hartuta; parte-hartzaileak 42 korear ziren, «Beaver» [Kastore] komunitatea esaten geniona, zeinean neure burua sartzan baitut. Proiektuak erakusten zuen narratiba zen muga nazional, sozial, politiko eta ekonomikoen birlerrotze eta birsorrera, eta muga horien inguruan sorturiko gune periferikoen konplizitatea mundu ordena berri neoliberalarekin. Gaiak eta programak berak ere kontestualitate eta zilegitasun handia izan arren proiektuan zehar bisitatu genituen Koreako leku eztabaidatueta, egia biluzia zera da, batik bat jarduera



mundutarrek edo eguneroko errrutinek osatzen zutela proiektua, hala nola ibiltzea, sukaldatzea, jatea, behatzea eta 16 Beaverrekin hitz egitea, artistek hitzaldi diskurtsibo bat eman zuten gauaren salbuespenarekin. Nolanahi ere, gogoia berriz Pyeongtaekeko pasadizora eramanda, neure buruari galdetzen diot zer ari ote ginen egiten edo egiten saiatzen makrostrukturaren esku ikusezinak jada erabaki atzeraezin bat hartua zuen lekuan. Eragin politiko garrantzitsua izatea espero genuen, edo behinik behin nolabaiteko oihartzun politikoa, Korean? Arte publikozko proiektu bakar baten bidez -nahiz errealtatean artegune batetik haratago zihoan ikerketa proiektu bat izan, hitzez hitz-eragin politikoa izatera ausartzen ginen aginte globalaren politikaren aurka bi urteko borroka bakartia zeraman tokiko komunitatean? Inozoak ginen, haurrak bezalakoak, idealistak, edo, are okerrago, heroiak izan nahi al genuen? Zer bilatzen genuen proiektu publikoan oro har, eta zer bilatzen genuen 16 Beaverrenak bezalako proiektu xeble haietan?

Errazegia izango litzateke galdera hauei erantzutea 90eko hamarkadan mundu osoan zehar goraldi handia izan zuten komunitatean oinarrituak direlako, prozesura bideratutako arte praktika dialogikoen esparruan. Hala ere, saiatuko naiz leku hartan izandako esperientzian neureganatu nuen jakintza praktikotik galderei erantzuten.

Nazioarteko arte munduaren periferian kokatuta egon arren, deialdi murriztuaren bidez proiektuan parte hartu zuten boluntarioek intuizioz bazekiten gaur egungo proiektu publikoak ez zuela zerikusirik leku publiko batean espazio fisiko bat eraikitzearekin, ezta jendearentzat eredu pedagogiko berri bat garatzearekin ere, politiko edo etikoki ilustratzeko modua den aldetik. J. Habermasen *The Structural Transformation of the Public Sphere* (1962) liburutik ideia mailegatu gabe ere, parte-hartzaileak, eguneroko bizitzan bereganatutako ezagutza praktikoaren bitartez, konturatzen ari ziren gaur egun proiektu publikoaren funtsezko gakoak ez daudela aldebateko elkarrizketa diskurtsiboetan, ezta errealtatean gauzatutako eragin politiko zehatzetan ere. Ikusi dute jada «espazio» publikoa, era berezian *erabilera komun* batera bideratutako *lurralde fisiko* batean oinarritzen den terminoa bera, ordezkatzeko ari dela «esparru» publikoa,



zeinak *espazio diskurtsibo* bat adierazten baitu *partaideak* bizimodu intersubjektiboki partekatu batean estu elkartzten dituen maila abstraktu batean.

Gehiegi sinplifikatzeko arriskua gorabehera, 90eko hamarkadatik hona proiektu publikoaren funtsezko izaera aldatu egin da, espazial eta apaindurazkoa izatetik kontzeptuala, enpirikoa, parte-hartzailea, praktikoa, interfazezkoa eta dialogikoa izatera pasatu da. Ideia horri tiraka, esanenezake proiektu publikoen -Beaver 16renak bezalako proiektu gogorak barne- berehalako lorpen bat dela parte-hartzaileak bultzatzea ikerketa enpirikoak egin ditzaten programa jakin baten inguruan eta, sakonago, engaiamendu aktiboa har dezaten beste subjektu sozial batzuekiko topaketa diskurtsiboetan. Esparru publikoa «publiko» moduan identifikatzen duena interfaz subjektibo bat da, eta beren burua testuinguru sozialean kokatzeko eta beren perspektiba, kontzientzia kritikoak eta errealitatearen sentipen argi batek elikatua, eraikitzeke tema duten gizabanakoen arteko elkarrekiko harremana.

Suposamendu horretan, oraindik orain gero eta sinestuago naukaten zenbait faktore sortzen dira proiektu publikoen ezaugarri berrien erabakitzaile moduan. Lehenbizikoa «publikoaren» nozio praktikan eskalara murriztua izango litzateke, «demokrazia kultural» ideiarene nozio erakargarri bati uko eginez. Hurrengo elkarlan proiektuan, Rotterdamen lan egiten duen Bik van der Pol bikotearekin →[www.bikvanderpol.net](http://www.bikvanderpol.net), deialdi irekiaz aukeratutako korear parte-hartzaileek osatutako talde bat antolatu nuen eta «arte ikusleak» moduan landu nituen, nolabait esateko, ideia-zaparrada saioetan. Proiektuaren muina tailer parte-hartzaile bat zen, hilabete pasa iraun zuena, harik eta ekoizpena argitalpen batean hezurmamitu zen arte, +82<sup>2</sup>. Elkarlanaren medioa «bidaietarako aldizkari-mahai» bat izan zen, artistek, talde independenteek, erakunde publikoek eta espazio alternatiboek xede komertzialik gabe argitaratutako aldizkari eta egunkarien artxibo fisiko bat. Banaketa-kanal nagusiei uko eginda, bilduma horren egile eta editoreek beren lanak kode irekian zabaldu dituzte ikusleentzat, keinu desafiatzaile gisa ezagutza sorrera eta egiletzaren nagusitasunaren sistema kapitalistaren aurka. Era horretan lortutako artxiboa informazio artistiko nagusiaren zirkulazioan eta banaketa-egituran erregistratu *gabe* dagoen ideia ukaezin, iritzi eta balio artikulatu bilduma bat da.

Parte-hartzaileen taldea, modu egokiago batean eta merezimenduz «komunitatea» deituko zitzaiona, 46 kideekin hasi zen, eta 12ra jaitsi zen tailer kolektiboaren itzaropenak areagotu ahala. Ikusleek beraiek, izugarri zentratuak, eraman zuten eztabaida koprodukzioaren xehetasun guztien inguruan, ikuspegi partekatuaren eta ideien probokazio interpertsonalaren mugak behartuz. Azken emaitza ahots anitzeko batzar bat izan zen, ez ideologia zehatz baten bitartekaritza behartua. Ahots guztietan tentsioa nabarmentzen da, adierazpenaren beraren konbentzimenduak eta denen lanarekiko konpromiso serio batek eragindako tentsioa. Tailerra eta koprodukzioa «ikusleei oro har» zabaldu bagenie, maila kimikoko elkarlan mota hori ezin izango zen gertatu.



Alexander Kluger aipatuz, Klaus Eder-ek egindako elkarrizketan<sup>3</sup>, «Esparru publiko bat eraikitzea politika, afektua, erresistentzia edo protesta sortzea bezain garrantzitsua da. Horrek esan nahi du borrokaren lekuak eta *kokapena* borroka bera bezain garrantzitsuak direla» (letra etzana nirea da). Xede moduan ezarritako ikusleak aukeratzea, definitzea, motibatzea eta hartara bere burua «komunitate» moduan identifikatzera probokatzea «esparru publiko» bat sortzeko aurrebaldintza da. Esparru publiko osasuntsu baten alor emankorrek izan beharko luke lehenik eta behin gizabanako bakoitzak sakon arakatutako kontzientzia autokritiko bat, maneiitzen erraza den xede-komunitate baten ezarpen estrategikoan bakarrik berma litekeena. Horrela ikusita, zuzenagoa izango litzateke «komunitate-proiektu» terminoa erabiltzea, gutxienez nire komisariatze lanean.

Ohartarazi beharreko beste osagai bat da parte-hartzaileen ideien hausnarketa, barreiatze, hartzitze eta eboluzio prozesua, truke interpersonal intimo baten bitartez. Auzi hori ohartarazi dute jada zenbait artista, komisario eta kritikariek maila teorikoan, baina haren garrantzia aldatu nahi nuke, ez larrialdiko egoera ustekabeko bat edo proiektu baten ondorio gisa, «mekanismo eragile» moduan baizik, proiektu oso bat birkargatzeko gai dena. Interesez aztertzen dut fenomeno hori egungo nire proiektuan, *Dongdoocheon: A Walk to Remember, A Walk to Envision*, lau artista garatzen ari direna Dongdoocheon eskualdean, haien lanen gai komuna baita. Koreak aldaketa izugarriak jasan ditu, hala nola japoniar kolonialismoa, nazioaren banatzea Gerra Hotz garaiko ideologiagatik, bost hamarraldi iraun dituen erregimen militar totalitarioa, modernizazioa eta industrializazioa, bai egungo globalizazioa zein prozesu kapitalista; baina hiri hori, Seul eta Ipar Koreako mugaren artean kokatua, aukeratu izan ohi du presentzia militar atzeritarra; lehenbizi japoniarra eta orain Estatu Batuenak. Eskualdearen izaera geopolitikoki sentibera dela eta, ukatu, baztertu eta manipulatu egin izan zaio ordezkaritza politikoa, eta hartara ahanztura eta ikusezintasunaren leku bilakatu da Korean, bere narratiba kontestualak artikulatzeko ikusizko zein ahozko hizkuntzaz gabetua<sup>4</sup>. Dongdoocheonen konpondu gabe dauden arazo anitzen artean, kritikoa eta sakonena da deslari eta lekuz aldatua den tokiko identitatearena. Dongdoocheoneko biztanleei beren-berena den tokiko identitate bat berreskuratzen laguntzearen, komunitate-proiektuko gure taldeak (kasu honetan artistek, tokiko ekintzaileek, gizarte planifikatzaileek, arte kritikariek, diseinatzaile grafiko batek eta zenbait idazlek osatua) helburu gisa dauka prozesuaren aktibatzaile eta erraztaile moduan funtzionatzea, kontuan hartuta prozesu horren bidez bertakoek kontzientzia kritikoa identifikatzen dutela eta gogo beroz ekiten diotela buru-hausnarketari eta beren arteko erresistentzia moldeei<sup>5</sup>.

Halako eginbehar desafiatazailerik bat onartzean, proiektu honek ahalik eta tresna gehien behar ditu, uztartuko dituztenak goian deskribatutako komunitate-proiektuen metodologia guztiak; komunitate-proiektu estrategikoki aurre-eraturik; konpromiso kolektibo bat ikerketa enpirikoarekiko, bisitaldiak lekuetara, eztabaidak in situ, iradokipen eta ideiak trukitzea; elkarrizketa inprobisatuak; tokiko bizimoduak eta kezka zehatzak partekatzea; artista banakoen eta komunitateko kideen interes eta bilaketekiko begiramenak, eta abar. Halako eszenategi batean, suposatzen da artistek paper desberdinak antzetzten dituztela: beren lanen ekoizle kreatiboena, ideia-katalizatzaile argiena, zuzendari eta eragile aktibo adimentsuena jarduera parte-hartzaileetan. Komisarioek eszena osatzen dute giza, gizarte, estetika eta artxibo alorreko baliabide guztiak orkestratuta.

Alabaina, zintzotasunez hitz eginda, hori nahiko ohikoa da gisa honetako komunitate-proiektuetan, eta gure dedikazioa handia izanda ere, arriskua dago proiektuak gudan eragitekoa, arrotzengan, alegia, komunitate barruan eragin beharrean, biztanleek eraginda. Proiektua erdialdera iritsi ahala, ordea, aldaketa interesgarria sumatzen ari gara bertako biztanlearengan. Tokiko ekintzailea da, egia esan, proiektuari egundoko ekarpena egingo zion espero genezakeen azken pertsona, gainezka dabilelako egunero aurre egin behar izaten dien urgentziatzko borroka politikoez. Hamar urte baino gehiagoko esperientzia zuen hiriko oinarritzko mugimendu zibikoaren barruan, eta eszeptiko samarra zen bere jaioterria bezain leku traumatizatu bati kanpoko pertsonak eman zezaketen ikuspegi kulturalarekiko. Geuk ere zehazten jakingo ez genukeen zerbaitek motibatuta, eraldatze bat gertatu zen, eta kolaboratzaile hutsa izatetik proiektu honetan jokalaria funtsezko izatera pasatu zen. Haren ezagutza kritikoreen bertsio propioaren hatsa emanda. Ez bakarrik ulertu zuen proiektuaren ideia, baizik eta gogoeta egin zuen haren inguruan, bere ideiak erantsi eta hitz ez espezializatuetan jarri zuen biztanleek erraz uler zezaten, eta horri esker hedatzen ari da haren helmena. Geure erraztaileekin edo haiek gabe, bitartekaritza lana egiten ari da gure eta udal funtzionarioen artean, gure eta eskualdeko zenbait interes-talderen artean. Ernaltze gurutzatu hori, gure eta tokiko komunitatearen arteko barreiatzea eta eboluzioa ilustratzen duen lana tailer bat da, *Discoplan* izenekoa, artearen eta kultur aktibismoaren artean diharduen Sangdon Kim artistak zuzendua. Bideoz eta testu+argazkietan egindako lanean zehar, Kim garatzen ari den tailerrean bertako parte-hartzaileak objektu hegalaria fabrikatzen ipini ditu eguneroko material birziklatuetatik abiatuta, eta «ereite zeremoniak» egiten dituzte behinola base militarren lurra ziren batzuetan, oraindik ere txarrantxazko horma batez itxita daudenak kutsadura larria dela eta. Objektu hegariak hazi-lekez kargatuta daude, eta lurreratzean zabaldu eta birsortu egiten dute lur kutsatua berezko sendatze-sistemaren bidez. Ekintzaileak iradokizun berri bat egin du, hots, diseinatu egingo zuela bere hiriko urteroko udazken-jaialdia, artistaren proiektuaren inguruan zentratua, harengan aurkitu zuen inspirazioa dela eta. Datorren udazken-jaialdia aurreko jaialdiak ez bezalakoa izango da, inolaz ere, haiek azken berrogeita hamar urteetako historia luze tristek markatuta egon baitira.



Artistaren eta ekintzailearen arteko harreman interperersonaleko bi urteetan pentsatzen jarrita, nahikoa natural irudiko luke ideien halako sortze, eboluzio eta barreiatzea espero izatea, baina kasu honetan gehien kitzikatzen nauena zera da, hemen bukatu ondoren biztanleen artean gertatuko zen proiektu honen etorkizuneko garapen, aldatze eta lekualdatzea irudika dezakegula. Oihartzun eta islapenezko ernamuin berdeak ikusten ditut nik tokiko biztanleen artean, erabaki autonomoak sendotzea espero dudanak, beren eskualdean esparru publikoa hedatzearren.

---

<sup>1</sup> Proiektu honen inguruko xehetasun gehiago hemen:

→ [www.insaartspace.or.kr](http://www.insaartspace.or.kr) eta hemen:

→ [www.16beavergroup.org/korea](http://www.16beavergroup.org/korea). Eskualde honen eta programaren inguruan gehiago jakiteko, hemen bilatu:

→ <http://antigizi.or.kr/english>

<sup>2</sup> 82 Hego Koreako kode zenbakia da nazioarteko telefono deietarako. Proiektu honen deskribapen xehekatuago bat hemen aurki daiteke: → [www.insaartspace.or.kr](http://www.insaartspace.or.kr)

<sup>3</sup> «The Public Sphere» in *If You Lived Here: The City in Art, Theory, and Social Activism, A Project by Martha Rosler*, Brian Wallis (arg.), The New Press, New York, 1991, 70. o.

<sup>4</sup> Dongdoocheon hiriaren inguruko informazio orokorra jaso daiteke Dongdoocheon hiriaren web orrian, → [www.ddc21.net](http://www.ddc21.net). Bertako mugimendu zibilaren inguruan informatzeko, hona jo: → [www.ddcngo.org](http://www.ddcngo.org), Dongdoocheoneko Herritarren Koalizioaren web orria bera. *A Walk to Remember, A Walk to Envision* proiektuaren xehetasunen aurrerapen bat agertuko da egun eraikitze lanetan ari den → [www.newmuseum.org](http://www.newmuseum.org) webgunean, New Yorkeko Arte Garaikiderako Museo Modernoaren web orria bera, proiektu horri ekin diona bi urteko programa baten -*Museum as HUB*- parte moduan.

<sup>5</sup> Esaldi hori Grant H. Kester-ek komunitate-proiektuen inguruan idatzitako liburu interesgarri honi zor diot: *Conversation Pieces: Community+Communication in Modern Art*, University of California Press, Berkeley eta Los Angeles, CA, 91. o.



↑ Sangdon Kim, *Discoplan*, performance, tailer, objektu, argazkia, marrazkia, testua, 2007 © Sangdon Kim.